



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko urriaren 20a

100. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (2. or.).
- Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina (11. or.).
- Nafarroako Parlamentuaren 2009ko kontu orokorrari buruz aholku emateko txostena, Comptos Ganberak egina (27. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa,
Comptos Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Berriozarko Udalari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Berriozarko Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa,
Comptos Ganberak egina**

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (4. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
 - IV.1. Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorra (4. or.).
 - IV.2. Legezkotasuna (4. or.).
 - IV.3. Finantza-egoera 2008ko abenduaren 31n (4. or.).
 - IV.4. Comptos Ganberak aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (5. or.).
- V. Kontu orokorraren laburpena (6. or.).
 - V.1. Aurrekontu-betetzearen egoera orria (6. or.).

V.2. Aurrekontu emaitza (7. or.).

V.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria (7. or.).

V.4. Egoera-balantzea (8. or.).

VI. Iruzkina eta gomendio orokorrak. (9. or.).

VI.1. Alderdi nagusiak (9. or.).

VI.2. Langileak (9. or.).

VI.3. Ondasun arrunten eta zerbitzuen alorreko gastuak (9. or.).

VI.4. Inbertsioak (9. or.).

VI.5. Hirigintza (10. or.).

Eranskina. 2008ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokoretako bulegoetan eta ondoko web helbidean hain zuzen:

www.cfnavarra.es/camara.comptos

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak Berriozarko Udalaren 2008ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Berriozarko Udalak 2,7 km² dauzka, eta 8.899 biztanle zeuzkan 2008ko urtarrilaren 1ean. Udalak honako zifra adierazgarriak dauzka 2008ko abenduaren 31n:

Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2008-12-31n
9.797.521,64	8.718.800,66	106

Oharra: 2008-12-31ko langileen artean, haur eskolarako 27 aldi baterako kontratazio ere kontuan hartuta daude

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak eta eskualdeko hiri-garraioak.

Halaber, Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean parte hartzen du. Horren bidez emaniko zerbitzuak dira abegi eta gizarte orientazioa, beren buruaz baliatzeko arazoak dituzten pertsonen arte ematea, haurtzaroa eta familia, drogamenpekotasun-programa eta gizarteratzea eta lan munduan sartzea.

Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoan ere parte hartzen du. Bulego hori Burlatan dago kokatuta. Halaber, ANIMSA sozietate publikoan parte hartzen du (informatikako zerbitzuak).

Toki entitateari 2008ko ekitaldian aplikatzekoa den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak toki entitateei buruz ezarritako berezitasunekin.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira,

zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren 2008ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa azaltzen da. Laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezketasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren epigrafean, Berriozarko Udalaren finantza-egoera nagusiak sartzen dira. Seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2008ko ekitaldiko kontuekin eginiko oroitidazkia.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Berriozarko Udalako langileei, lan hau prestatzeko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Berriozarko Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

a) Berriozarko Udalaren 2008ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen, alderdirik behinena-tan, entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera, aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Entitateak 2008an izandako jarduerari aplikatzekoa zaion legediaren betetze-maila.

c) Zein zen udalaren finantza-egoera 2008ko abenduaren 31n.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan ganbera honek emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, udalaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Berriozarko Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Aurrekontuaren betetze-mailari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaiza eta entitatearen diruzaintza-gerakina.

- Entitatearen egoera-balantzea eta galeren eta irabazien kontua.

- Oroitidazkia.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolerako Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

Comptos Ganberak txosten berriazkoa egin du 2009an Iruñerriko udalek 2005etik 2008ra bitartean sinaturiko hirigintza-hitzarmenen fiskalizazioari buruz. Berriozarko Udala Iruñerrian dagoenez gero, gure azterketan ez ditugu jaso udalak 2008an egin zitzakeen hirigintza-hitzarmenak, txosten horren xede baitira.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Berriozarko Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorra aztertu dugu. Udalaren erantzukizuna da kontu horren prestaketa eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2008ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa jasotzen du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke udalaren jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun printzipioari jarraituz egin dela.

IV.3. FINANTZA-EGOERA 2008ko ABENDUAREN 31n

Berriozarko Udalaren finantza-egoeran, aipatzeko moduko likidezia nabarmentzen da, 2007an udalaren jabetzapeko lursail batzuk saldu izatearen ondoriozkoa. Bestalde, zorpetze-maila ehuneko 1ekoa da (muga, berriz, ehuneko 24an dago), eta diru-sarrera arruntek ehuneko 30 gainditzen dituzte gastu arruntak, hirigintza jarduerarekin lotutako baliabideak direla eta.

Datu ekonomiko nagusi gisa ondokoak nabarmentzen ditugu:

- Hasierako aurrekontua 8,4 milioi eurokoa da. Behin betikoa 14,6 milioi eurokoa. Gastuen betetze-maila ehuneko 67 da, eta diru-sarrerena, ehuneko 60. Azken hori ehuneko 103raino iritsiko litzateke diruzaintzako gerakinaren behin betiko aurreikuspenak kontuan izan gabe.

- Guztizko gastuek 9,8 milioi euro egiten dute; horietatik, ehuneko 60 eragiketa arruntengatiko gastuei dagozkie, eta ehuneko 40, berriz, kapital-eragiketei.

- 2007. urteari dagokionez, gastuen guztizkoak ehuneko 43 egin du gora; eragiketa arruntek, berriz, ehuneko 12, eta kapitaleko eragiketek, azkenik, ehuneko 153.

- Ekitaldian aitorturiko diru-sarrerak 8,7 milioi eurokoa izan ziren. 2007ko ekitaldiari dagokionez, diru-sarreraren guztizkoak ehuneko 64 egin du behera, kapitaleko eragiketengatiko diru-sarrerak ehuneko 95 behera egin izatearen ondorioz. Eragiketa arruntengatiko diru-sarrerak, ordea, ehuneko 24 egin zuten gora.

- Ekitaldiko aurrekontu-emaizta doitua 1.148.195 eurokoa izan da; izan ere, ehuneko 17 egin du gora 2007ko ekitaldiarekin alderatuta.

- Aurrezki garbia diru-sarrera arrunten ehuneko 14 izatetik ehuneko 23 izatera igaro da 2007tik 2008ra. Igoera horren arrazoia interesengatiko eta hirigintza-jardueraren ondoriozko diru-sarrera puntualak izan dira.

- 2008ko zorpetze maila ehuneko 1ekoa da (ehuneko 2,1ekoa zen 2007an), eta zorpetzearen muga, berriz, ehuneko 24koa (ehuneko 16,4koa zen 2007an).

- Guztizko diruzaintza-gerakina 14,8 milioi eurokoa da, eta 2,7 milioi euro egin du behera 2007. urtearekin alderatuta.

- Epe luzeko zorra 1,6 milioi eurokoa zen 2008ko abenduaren 31n.

IV.4. COMPTOS GANBERAK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Orokorrean, aurreko txostenetan jasotako gomendio nagusiak aintzat hartu dira. Betetzeke geratu da aurrekontua ekitaldiaren hasiera baino lehen onesteari buruzkoa.

V. KONTU OROKORRAREN LABURPENA**V.1. AURREKONTU-BETETZEAREN EGOERA
ORRIA**

Gastuen kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketa kitatuak	Likidatua (%)	Ordaintzeko dagoena
Langileria-gastuak	3.001.900	119.872	3.121.772	3.119.119	%100	3.054.470	%98	64.649
Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	2.193.400	-9.472	2.183.928	2.174.357	%100	1.987.862	%91	186.495
Finantza-gastuak	43.000	-500	42.500	975	%2	975	%100	0
Transferentzia arruntak	618.200	13.200	631.400	630.140	%100	486.730	%77	143.410
Inbertsio errealak	2.327.100	6.096.705	8.423.805	3.663.033	%43	2.332.807	%64	1.330.226
Kapital-transferentziak	150.000	0	150.000	135.576	%90	110.770	%0	24.806
Pasibo finantzarioak	74.400	6.600	81.000	74.321	%92	74.321	%100	0
Gastuak, guztira	8.408.000	6.226.405	14.634.405	9.797.521	%67	8.047.935	%82	1.749.586

Dirusarrerak kapitulua ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapitulua	Hasierako kredituak	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	% Betea	Kitatutakoa, guztira	Likidatua (%)	Kobratzeko dagoena
Zuzeneko zergak	1.812.500	0	1.812.500	1.806.201	%100	1.509.902	%84	296.299
Zeharkako zergak	1.786.650	0	1.786.650	1.133.424	%63	792.634	%70	340.790
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	823.900	0	823.900	1.143.961	%139	867.679	%76	276.282
Transferentzia arruntak	2.795.000	28.000	2.823.000	3.027.244	%107	2.593.530	%86	433.714
Ondareko diru-sarrerak eta aprob. komunalak	138.900	0	138.900	680.612	%490	648.355	%95	32.257
Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0	%0	0	%0	0
Kapital-transferentziak	1.051.050	0	1.051.050	927.358	%88	135.361	%15	791.997
Aktibo finantzarioak	0	6.198.405	6.198.405	0	%0	0	%0	0
Pasibo finantzarioak	0	0	0	0	%0	0	%0	0
Diru-sarrerak, guztira	8.408.000	6.226.405	14.634.405	8.718.800	%60	6.547.462	%75	2.171.339

V.2. AURREKONTU EMAITZA

Kontzeptua	2008	2007
Aitortutako eskubideak	8.718.801	24.128.069
(Aitortutako betebeharrak)	(9.797.522)	(6.828.469)
Aurrekontu-emaizta	-1.078.721	17.299.600
DOITZEAK		
(Finantzaketaren desbideratze positiboak)	(11.445)	(16.561.821)
Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	2.238.361	247.652
Aurrekontu-emaizta doitua	1.148.195	985.431

V.3. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA

Kontzeptua	2008	2007
+ Kobratzeko dauden eskubideak	2.291.710	2.888.086
Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	2.171.146	2.798.322
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.928.276	374.362
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	21.125	30.937
Ordainketen itzulketak	838	232
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	(1.759.821)	(287.434)
(Aplikatzeko dauden diru-sarrerak)	(69.854)	(28.333)
- Ordaintzeko dauden betebeharrak.	1.930.722	3.395.148
Gastu-aurrekontua: aurtengo ekitaldia	1.749.586	519.623
Gastu-aurrekontua: itxitako ekitaldiak	16.608	14.958
Diru-sarreraren itzulketak	815	1.008
(Aplikatzeko dauden gastuak)	(11.305)	0
Aurrekontuz kanpoko gastuak	175.018	2.859.559
+ Diruzaintzako funts likidoak	14.485.764	18.058.347
+ Finantzaketaren desbideraketa metatu negatiboak	0,00	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	14.846.752	17.551.285
Finantzaketa atxikia duten gastuengatikoa gerakina	278.740	245.119
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	13.174.815	16.316.702
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.393.197	989.464

V.4. EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA

Izena	2008	2007	Aldea
A) IBILGETUA	22.053.088	19.639.530	2.413.558
1. Ibilgetu materiala	21.775.178	19.598.518	2.176.660
2. Ibilgetu ez-materiala	152.198	27.195	125.003
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	123.608	11.713	111.895
4. Herri ondasunak	0	0	0
5. Finantza-ibilgetua	2.104	2.104	0
C ZIRKULATZAILEA	17.349.606	21.009.401	-3.659.795
7. Izakinak	0	0	0
8. Zordunak	2.361.565	2.916.419	-554.854
9. Finantza-kontuak	14.497.068	18.064.664	-3.567.596
10. Egoera iragankorrak, aldizkatzearen ondoriozko doitzeak.	32.933	28.318	4.615
11. Aplikatzeko dagoen emaitza	458.040	0	458.040
AKTIBOA, GUZTIRA	39.402.694	40.648.931	-1.246.237

PASIBOA

Izena	2008	2007	Aldea
A FUNTS BEREKIAK	35.699.257	35.421.066	278.191
1. Ondarea eta erreserbak	27.379.986	25.418.437	1.961.549
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0	2.610.660	-2.610.660
3. Kapital-dirulaguntzak	8.319.271	7.391.969	927.302
C EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	1.595.625	1.662.666	-67.041
4. Jasotako prestamenak, maileguak, fidantzak eta gordailuak	1.595.625	1.662.666	-67.041
D EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	2.107.812	3.565.199	-1.457.387
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	2.016.348	3.476.749	-1.460.401
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzeak eragindako doitzeak	91.464	88.450	3.014
PASIBOA, GUZTIRA	39.402.694	40.648.931	-1.246.237

VI. IRUZKINAK ETA GOMENDIO OROKORRAK.

Ondotik, kudeaketaren arlo aipagarrien arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz udalak bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzkeen neurriei buruzko gomendio nagusiak emango ditugu.

VI.1. ALDERDI NAGUSIAK

VI.1.1. Aurrekontuaren alderdiak eta kontu orokorra

2008ko ekitaldirako aurrekontu orokor bateratua 2008ko urtarrilaren 30ean onetsi zuen, behin-behinekoz, udaleko osoko bilkurak. Legez aurreikusitako izapideak bete ondoren, behin betiko onespena 2008ko apirilaren 14ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Kontuen Batzorde Bereziak 2009ko maiatzaren 20an eman zuen aldeko txostena 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren onespenera buruz, baina udalbatzako osoko bilkurari 2010eko apirilaren 28an aurkeztu zitzaion.

Hona gure gomendioak:

- *Aurrekontuak lege indardunetan ezarritako epeetan onetsi behar dira.*
- *Kontu orokorra hurrengo ekitaldiko irailaren 1a baino lehen onetsi behar da.*

VI.1.2. Beste alderdi orokor batzuk

Ordenantza fiskalek eta prezio publikoei buruzko arau erregulatuak 2008ko urtarrilaren 1ean hartu zuten indarra: hasiera batez, 2007ko azaroaren 28ko osoko bilkuran onetsi ziren, eta behin betiko onespena, berriz, 2008ko apirilaren 18ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Udalak ez du dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorrik, dirulaguntzak emateko irizpideak eta prozedura arautzeko.

Oro har, ez da ageri aintzat hartu direnik abian dauden inbertsioak funtzionatzen hastearen ondoriozko gastuek gastu arruntetan izanen dituzten eraginak.

Hona gure gomendioak:

- *Ordenantza fiskalen eta prezio publikoei buruzko arauen onespena behar adina denborarekin izapidetzea, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara daitezen ekitaldia hasi aurretik.*
- *Dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokorra onestea.*
- *Inbertsio proiektuak abian jartzeak eta urtero mantentzeak dakartzaten gastu arruntak aztertzea.*

VI.2. LANGILEAK

Langile gastuek 3.119.119 euro egin dute, eta behin betiko kredituen ehuneko 100 bete da. Horrek, izan ere, ekitaldian aitortutako gastu guztien ehuneko 32 egiten du.

2007arekin alderatuta, ehuneko 25eko igoera egon da; hori, alde batetik, azal daiteke haur eskolako kudeaketa zuzena egin delako, 2008/2009 ikasturterako aldi baterako neurri gisa. Horrek berarekin ekarri du, erantsitako txostenean adierazi bezala, 27 langile kontratatzea (17, lanaldi osoan; eta 10, lanaldi partzialean). Aldaketa horrek langile-gastuetan izan duen efektua partziala da, zeren eta horretan ekitaldiko azken lau hilabeteek baizik ez baitute eraginik izan.

2008ko plantilla organikoa 70 lanpostuk osatzen dute, eta lanpostu hutsak ehuneko 27 dira. 2008ko abenduaren 31n 106 langile daude, zenbateko horren barnean direla haur eskolako aldi baterako kontratazioak. Horrek esan nahi du ehuneko 45eko hazkundea egon dela 2007ko abenduaren 31ko egoerarekin alderatuta.

Hona gure gomendioak:

- *Haur eskolaren kudeaketarako dauden aukeren alderdi guztiak aztertzea, eta horren ondorioz, kasu bakoitzerako planteamendu ekonomiko bat egitea, erabakiak hartzen laguntzeko.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN ALORREKO GASTUAK

2008ko ekitaldian ondasun arruntengatik eta zerbitzuegatik aitorturiko betebeharrak 2.174.357 euro egiten dute, eta aurrekontuan exekutatu den guztiaren ehuneko 22 egiten dute. Betetze maila ehuneko 100 izan da.

2007arekin alderatuta, ehuneko 7 egin dute gora, baina gogorarazi beharra dago kapitulu honetan ez direla erregistratu haur eskolaren kudeaketarengatik gastuak, irailtik abendura bitarteko aldiari dagozkionak; izan ere, datu horiek, kontusailaren exekuzioari buruzko datuekin batera (168.000 euro direla jotzen dugu), kapitulu honetako aldaketa ehuneko 15eraino eramaten zuten.

Kapitulu honetan erregistratutako gastuei buruz eginiko azterketaren ondorioz, egiaztatu da behar bezala izapidetu direla, eta ez dela atzeman aplikatzekoak diren arauen urraketarik.

VI.4. INBERTSIOAK

Hasierako aurrekontua 2.317.100 eurokoa zen, eta gora egin du aurrekontu-aldaketen ondorioz.

Aldaketa horiek, funtsean, diruzaintzako gerakina-rekin finantzatu dira, behin betiko aurrekontua 8.423.805 eurokoa izateraino.

Ekitaldian egindako inbertsioek 3.663.033 euro egiten dute; horrek esan nahi du exekuzio maila ehuneko 43koa dela. Gastuen aurrekontuko gutzitzaoren ehuneko 37 egiten du. 2007. urtearekin alderatuta, ehuneko 151 egin du gora, nahiz eta aurrekontuan jasotako jarduketak ez bete.

Aitortutako betebeharren ordainketak erregistratutako inbertsioen ehuneko 64 egiten du 2008ko abenduaren 31n.

Udal eraikinetan obrak egiteko kontusaileen udalaren eta kultur etxearen eraikin berria eraikitzekeo gastua sartzen da, zeinak ekitaldian 2.139.786 euroko betebeharrak aitortuak izan eta kapitulu honen gutzitzaoren ehuneko 58 egiten baitu. 2008ko abenduaren 31n 1.309.173 euro ordaindu dira (ehuneko 61).

Aipatutako obrak 2006ko urriaren 25ean adjudikatu zitzaizkion lehiaketara aurkeztu zen enpre-

sa bakarrari, 4.258.868 euroko zenbatekoan (BEZa barne), eta exekuzio epea 16 hilabetekoa izanen da, zuinketa-akta egin zen egunetik (2007ko urtarrilaren 12a) kontatuta. Obra egiteko epea zabaltzeko eskari batzuk egin ondoren, 2008ko abenduaren 31n obra amaitu gabe zegoen.

Erantsitako txostenean adierazi bezala, obraren amaiera 2009ko erdirako zegoen aurreikusita, eta litekeena da ehuneko 28,5eko igoerarekin exekutzea.

Gure lanak hartzen duen epea 2008ko ekitaldia bada ere, egokitzen jotzen dugu nabarmen 2010eko apirilaren 28an Berriozarko udalak obrarako kontrataren amaierako zenbatekoa onetsi duela, 4.855.838 euro (BEZik gabe) hain zuzen ere, bai eta obrak egiteko epea ez betetzeagatik berandutzari dagokion zehapena ere, 474.000 eurokoa. Obra 2009ko urriaren 2an jaso zen, zenbait baldintzarekin.

Kapitulu horretako gastuen lagin bat aztertu dugu, ondoko kontratazio-espeditentak barne:

	Kontratu mota	Prozedura	Esleitutako zenbatekoa (BEZik gabe)
Aparkaleku publikoak egiteko obrak, Mendiakalea ikastetxearen inguruan	Obrak	Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua	168.000
Hiriko kale-garbigailu autopropulsiatuen hornidura	Hornidura	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	124.900
Kultur etxea egiteko proiektua idaztea	Laguntza teknikoa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	88.498

Espediente horiek aztertuta, ondorioztatzen dugu haien izapidetzea eta adjudikazioa gauzatu direla aplikatzeko den araudiaren arabera.

VI.5. HIRIGINTZA

Berriozarko planeamenduari buruzko tresna 1991ko maiatzaren 8an onetsitako arau subsidiarioak dira. Udal planeamendu orokorren homologazioari buruz Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legean jasotako xedapenak betetze aldera, udalak 2005eko uztailan esleitu zituen Udal Plan Orokorra prestatzeko laguntza teknikoko lanak.

Lurraren Erabilerrako Estrategia eta Eredua (LEEE), udal plan orokorreko lehen dokumentu gisa idatzita dagoena, 2006ko otsailan onetsi zen.

2008ko ekitaldian, amaitu gabe zeuden udal plan berria idazteko lanak.

Bestalde, 2008ko ekitaldian, behin betiko onepena eman zitzaion Berriozarko arau subsidiarioetako R-8 unitatea birzatatzeari; horretan, izan ere, 160 etxebizitza eraikitzea aurreikusi da.

Udalak Lurzoruaren Udal Ondarearen berriazko inbentario eta erregistroa dauzka, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarri bezala, bai eta hirigintza-hitzarmenen erregistro bat ere.

Txosten hau auditore M^a. Pilar Sola Mateos andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Lizarrako Udalari buruz egingako fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Lizarrako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2008ko ekitaldikoa, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (12. or.).
- II. Helburua (12. or.).
- III. Norainokoa (13. or.).
- IV. Iritzia (13. or.).
 - IV.1. Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorra (13. or.).
 - IV.2. Legezkotasuna (13. or.).
 - IV.3. Finantza-egoera 2008ko abenduaren 31n (13. or.).
 - IV.4. Comptos Ganberak aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (14. or.).
- V. Kontu orokor bateratuaren laburpena (15. or.).
 - V.1. Aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (15. or.).
 - V.2. Aurrekontu-emaizta bateratua (16. or.).
 - V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua (16. or.).
 - V.4. Egoera-balantze bateratua (17. or.).
- VI. Iruzkina, ondorioak eta gomendioak (18. or.).
 - VI.1. Alderdi nagusiak (18. or.).
 - VI.2. Langileria arloko gastuak (18. or.).
 - VI.3. Ondasun arrunten eta zerbitzuen alorreko gastuak (19. or.).
 - VI.4. Inbertsioak (19. or.).
 - VI.5. Aurrekontuko diru-sarrerak (23. or.).
 - VI.6. Ibilgetua - inbentarioa (24. or.).
 - VI.7. Gorabeherak (24. or.).
 - VI.8. Finantza-kontuak (24. or.).
 - VI.9. Aurrekontuz kanpoko kontusailak (24. or.).
 - VI.10. Hirigintza (24. or.).
 - VI.11. "Julián Romano" Musika Patronatua Erakunde Autonomoa (25. or.).
 - VI.12. "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarrá, S.A." udal sozietatea. (26. or.).

Eranskina. 2008ko ekitaldiko kontuen oroitidazkia.

(Oharra: aipaturiko eranskinak foru parlamentarien esku daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos

I. SARRERA

Bere jarduera-programari jarraikiz, Comptos Ganberak udalaren eta haren erakunde autonomo "Julián Romano" Musika Patronatuaren 2008ko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Lizarrako Udalak 15,39 km² dauzka eta 14.049 biztanle zeuzkan 2008ko urtarrilaren 1ean. Udalak eta musika patronatuak zenbateko hauek zituzten 2008ko abenduaren 31n:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2008-12-31n
Udala	23.340.053	18.248.815	161
"Julián Romano" Musika Patronatua	384.793	403.711	18
-Bateratzearen doitzeak	-188.741	-188.741	
Bateratua, guztira	23.536.105	18.463.785	179

Oharra: 2008ko abenduaren 31ko langileen artean, behin-behineko 40 langile daude, tailer-eskolakoak, eta beste 11 gizarte enplegutik heldu direnak.

Udalak, 2006an, "Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarrá S.A." enpresa sortu zuen. Kapital soziala udalarena zen guztiz, 60.500 eurokoa hain zuzen. 2007an eta 2008an, sozietate horrek ez du inongo jarduerarik izan.

Jurramendiko Mankomunitatearen barruan da Udala, eta haren bidez eskaintzen ditu ur horniketa eta zabor-bilketa zerbitzuak. Lizarraldeko Turismo Partzuergoan eta L'Urederra elkartean ere parte hartzen du.

Lizarrako Udalarik 2008ko ekitaldian aplikatzen den araubide juridikoa, funtsean, honako hauek osatzen dute:

- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko 7/1985 Legea.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena.
- Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legea, 1/2007 Foru Legeak ezarritako berezitasunekin.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra.
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea.
- Kontabilitatearen eta aurrekontuen arloan, araubide juridikoa ezartzen dutenak 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak dira, zeinak Nafarroako Toki Administrazioarako aurre-

kontu eta gastu publikoari, aurrekontu-egiturari eta kontabilitateari buruzkoak baitira.

- Udalaren 2008ko aurrekontuaren exekuzio oinarriak eta gainerako barne araudia.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean txostenaren helburuak agertzen dira. Hirugarrenean, egindako lanaren norainokoa azaltzen da. Laugarrenean, Kontu Orokorrari, legezketasunari, finantza egoerari eta aurreko gomendioen jarraipenari buruz dugun iritzia agertzen dugu. Bosgarren atalean, kontu orokor bateratuaren laburpen bat ageri da. Seigarren atalean, azkenekoan, udalaren, haren erakunde autonomoaren eta menpeko sozietate publikoaren antolaketak eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun iruzkin, ondorioztapen eta gomendioak bilzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin batean sartu da udalak 2008ko ekitaldiko kontuekin egindako oroitidazkia.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Lizarrako Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoko langileei.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Comptos Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Lizarrako Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren erregulartasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenak helburu du honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea:

- a) Lizarrako Udalaren 2008ko kontu orokorrak fidelki islatzen ote duen alderdirik behinenetan

entitatearen ekonomia- eta finantza-egoera eta aurrekontuaren likidazioa eta lorturiko emaitzak, eta orokorki onartuak diren kontabilitate-printzipio eta -arauei jarraituz prestatu ote den eta horiek uniformetasunez aplikatu diren.

b) Aplikagarri zaion legedia zer neurritan betetzen den Lizarrako Udalak eta haren menpeko erakunde autonomoak 2008an aurrera eramandako jardueran.

d) Lizarrako Udalaren eta haren erakunde autonomoaren 2008ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

d) Azken fiskalizazio-txostenetan ganbera honek emandako gomendioak noraino bete diren.

Txostenarekin batera, beharrezkoak diren gomendioak eman ditugu, entitatearen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa hobetze aldera.

III. NORAINOKOA

Comptos Ganberak Lizarrako Udalaren 2008ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin du.

Hona hemen udalak aurkezturiko finantzen egoera-orri nagusiak:

- Toki entitatearen kontua eta haren erakunde autonomoarena: Aurrekontuaren likidazioa, balantzea, galeren eta irabazien kontua eta eranskinak.
- Udal sozietatearen egoeraren balantzea eta galeren eta irabazien kontua.
- Kontu orokorrari erantsitakoak: oroitidazkia, kontu bateratua, zorraren egoera-orria eta kontu-hartzaitzaren txostena.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauetara jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hauta-proba edo prozedura tekniko guztiak aplikatuz. Prozedura horien artean erabili da laginen teknika, edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Lizarrako Udalaren, haren erakunde autonomoaren eta haren menpeko sozietatearen 2008ko ekitaldiko Kontu Orokorra aztertu dugu. Udalaren ardura da kontuaren prestatzea eta edukia.

Egindako berrikuspenaren ondorio gisa, honako iritzi hau adierazi behar dugu:

IV.1. UDALAREN 2008ko EKITALDIKO KONTU OROKORRA

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, eta ez da eguneratu, eta ez ditu jasotzen ondasun eta eskubide guztiak; horregatik, ezinezkoa izan da udalaren eta erakunde autonomoaren ibilgetuaren kontabilitate saldoa — eurokoa, 2008ko abenduaren 31n— zentzuzkoa dela egiaztatzea.

Arestian aipaturiko salbuespenaren ondorioak alde batera utzita, 2008ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta eginiko eragiketaren emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta arauetara jarraituz.

IV.2. LEGEZKOTASUNA

Eginiko lanaren norainokoaren neurrian, esan daiteke 2008ko ekitaldian udalaren eta haren erakunde autonomo "Julián Romano" Musika Patronatuaren jardura ekonomiko eta finantzarioa oro har legezkontasun-printzipioari jarraituz egiten dela.

IV.3. FINANTZA-EGOERA 2008ko ABENDUAREN 31n

Ondotik doaz 2008ko ekitaldiko zenbait datu ekonomiko:

Hasierako aurrekontu bateratua 21,2 milioi eurokoa zen, eta 38,2 milioikoa izatera pasatu da, aurrekontu-aldaketaren ondorioz. Aldaketa horiek, funtsean, inbertsioen kapituluaren izan dute eragina; kapitulu hori, izan ere, 9,5 milioi euroko hasierako kredituekin, 26,2 milioi eurokoa izatera iritsi da.

Aitortutako betebeharrak bateratuak 23,5 milioi eurokoak izatera iritsi dira, eta aitortutako eskubi-deak, berriz, 18,5 milioi eurokoak izatera. Exekuzio-maila, hurrenez hurren, ehuneko 62 eta ehuneko 48 da. Azken hori ehuneko 62 da, diruzaintza-gerakina kontuan hartzen ez bada.

Eragiketa motari erreparatuz gero, gastu arruntak 10,7 milioi eurokoak dira, eta diru-sarrerak arruntak, berriz, 13,3 milioi eurokoak. Bietan, exekuzioa ehuneko 90 ingurukoa da. Azken horietan, nabarmentzekoak dira eraikuntzaren sektoreak sortu eta aldizkakoak ez diren diru-sarrerak (1,9 milioi euro).

Kapital-eragiketetan, gastuak –funtsean, inbertsioen arlokoak– 12,7 milioi eurokoak izan dira; diru-sarrerak, berriz, 5,2 milioi eurokoak. Betetze maila ehuneko 49 izan da gastuetan eta ehuneko 35, berriz, diru-sarreretan.

2007. urteko ekitaldiarekin alderatuta, gastu arruntek ehuneko 13 egin dute gora; diru-sarrera arruntek, berriz, ehuneko 18 egin dute gora. Kapital-eragiketengatiko gastuek –funtsean inbertsioek– ehuneko 66 egin dute gora, eta horren ondorioz azken ekitaldietako inbertsio-bolumenik handiena gertatu da. Kapitaleko diru-sarrerek, ordea, ehuneko 43 egin dute behera.

Aurrekontu-emaizta bateratu doitua, ekitaldiaren amaieran, superabiteko 1,6 milioi euroko superabita izan da (2007an, aldiz, 1,1 milioi eurokoa izan zen).

Aurrezki garbia diru-sarrera arrunten ehuneko 14koa izatetik ehuneko 18koa izatera igaro da 2007tik 2008ra.

Guztizko diruzaintza-gerakinak 2008ko abenduaren 31n ehuneko 46 egin du behera 2007. urtearekin alderatuta, eta 4,5 milioi eurokoa izatera iritsi da; horietatik, 470.133 euro gastu arruntetarako gerakinari dagozkio.

Udalaren finantza-zorra, 2008ko abenduaren 31n, 7,2 milioi eurokoa da (7,3 milioi euro 2007ko abenduaren 31n).

Zorpetze-maila diru-sarrera arrunten gaineko ehuneko 1,8koa da, eta zorpetze-muga, berriz, ehuneko 20,1ekoa.

IV.4. COMPTOS GANBERAK AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

Oro har, bete gabe jarraitzen dute aurreko txostenetako administrazio eta kontabilitate arloko zenbait gomendiok. Ondokoek, besteak beste:

- *Udal inbentarioa gaurkotu eta onestea.*

- *Behin betiko onartzea aurrekontu orokorra, kasuan kasuko ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.*

- *Udal ondasunen inbentario orokorrean adierazi eta zehaztea udalaren lurzoru-ondarekoak direnak, eta lurzoruaren udal ondarearen erregistroa sortzea.*

- *Diruzaintzako egoera-orriari eranstea saldoen berdinkatze-akta.*

V. KONTU OROKOR BATERATUAREN LABURPENA**V.1. AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Gastuen kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitorturiko betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1 Langileria-gastuak	6.591.612	6.622.086	5.851.769	88%	5.790.987	99%	60.782
2 Ondasunak eta zerbitzuak erostea	4.062.407	4.143.654	3.837.080	93%	3.042.432	79%	794.648
3 Gastu finantzarioak	156.541	156.541	106.624	68%	90.823	85%	15.801
4 Transferentzia arruntak	732.332	946.423	890.454	94%	733.128	82%	157.326
6 Inbertsio errealak	9.540.355	26.196.165	12.707.358	49%	8.463.128	67%	4.244.230
7 Kapital-transferentziak	-	-	-	-	-	-	-
8 Aktibo finantzarioen aldaketa	-	6.944	6.944	100%	6.944	100%	-
9 Pasibo finantzarioen aldaketa	142.912	142.912	135.875	95%	135.875	100%	-
Gastuak, guztira	21.226.159	38.214.725	23.536.104	62%	18.263.317	78%	5.272.787

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Diru-sarreraren kapituluak	Hasierako aurreikuspena	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubide garbiak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobrantzak (%)	Kobratzeko
1 Zuzeneko zergak	3.481.112	3.481.112	3.690.556	106%	3.546.279	96%	144.277
2 Zeharkako zergak	1.700.000	1.700.000	1.879.159	111%	1.871.318	99%	7.841
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.409.382	1.409.382	1.671.159	119%	1.369.986	82%	301.174
4 Transferentzia arruntak	5.716.867	5.716.867	5.747.332	101%	5.462.792	95%	284.540
5 Ondareko diru-sarrerak	2.648.651	2.648.651	253.844	10%	233.783	92%	20.061
6 Inbertsio errealeen besterentzea	1.800.000	4.464.388	685.611	15%	-	-	685.611
7 Kapital-transferentziak	4.470.146	10.559.263	4.536.123	43%	2.384.878	53%	2.151.245
8 Aktibo finantzarioak	-	8.235.061	-	-	-	-	-
9 Pasibo finantzarioak	-	-	-	-	-	-	-
Diru-sarrerak, guztira	21.226.159	38.214.724	18.463.784	48%	14.869.036	81%	3.594.749

V.2. AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2007ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	20.413.614	18.463.785
(Aitortutako betebeharrak garbiak)	(17.172.477)	(23.536.104)
Aurrekontu-emaizta	3.241.137	(5.072.319)
DOITZEAK		
(Finantzaketaren desbideratze positiboa)	(4.813.728)	(3.575.294)
Finantzaketaren desbideratze negatiboa	1.313.689	6.028.505
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak	1.357.887	4.166.256
Aurrekontu-emaizta doituak	1.098.985	1.547.147

V.3. DIRUZAINZTA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA

Kontzeptua	2007ko ekitaldia	2008ko ekitaldia	Aldea, %
+ Kobratzeko dauden eskubideak	2.703.209	4.740.280	% 75
Diru-sarreraren aurrekontua: aurtengo ekitaldia	2.747.786	3.594.749	% 31
Diru-sarreraren aurrekontua: itxitako ekitaldiak	1.191.681	2.032.619	% 71
Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	94.964	494.842	% 421
(Dirubilketa zaileko eskubideak)	(1.331.222)	(1.381.930)	% 4
- Ordaintzeko dauden betebeharrak.	3.275.357	5.919.150	% 81
Gastu-aurrekontua: aurtengo ekitaldia	2.764.167	5.272.787	% 91
Gastu-aurrekontua: itxitako ekitaldiak	24.208	17.330	(% 28)
Aurrekontuz kanpoko gastuak	486.982	629.033	% 29
+ Diruzaintzako funts likidoak	7.701.553	3.080.269	(% 60)
+ Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	1.105.932	2.576.639	% 133
= Diruzaintzako gerakina, guztira	8.235.337	4.478.038	(% 46)
Finantzaketa atxikia duten gastuengatikoko gerakina	4.883.519	3.321.853	(% 32)
Gerakina, baliabide atxikiek sortua	-	685.611	% 100
Gastu orokorretarako gerakina	3.351.818	470.574	(% 86)

V.4. EGOERA-BALANTZE BATERATUA

AKTIBOA

Deskribapena	Zenbatekoa, 2007	Zenbatekoa, 2008
Ibilgetua	58.276.698	69.938.179
Zordunak	2.732.190	4.821.972
Kontu finantzarioak	7.765.321	3.152.719
Aktiboaren beste kontu batzuk	59.685	85.708
AKTIBOA, GUZTIRA	68.833.894	77.998.578

PASIBOA

Deskribapena	Zenbatekoa, 2007	Zenbatekoa, 2008
Ondarea eta erreserbak	37.987.303	41.087.467
Ekitaldiko emaitza	3.101.106	2.091.027
Kapital-dirulaguntzak	17.071.204	21.550.684
Epe luzeko zorrak	7.304.629	7.168.754
Epe laburreko zorrak	3.278.968	5.969.203
Aplikatzeko dauden kontusailak	25.380	31.608
Aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	1.425	1.646
Formalizazioa		663
Pasiboaren beste kontu batzuk	63.879	97.526
PASIBOA, GUZTIRA	68.833.894	77.998.578

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Jarraian azaltzen dira, kudeaketa-arlo garrantzitsuenetako bakoitzerako, Comptos Ganbera honen aburuz udalak jarraitu behar dituen gomendio nagusiak, bere antolamendu, prozedura, kontabilitate eta barne-kontrolako sistemak hobetzeko.

VI.1. ALDERDI NAGUSIAK

VI.1.1. Aurrekontuaren eta Kontu Orokorren alderdi orokorrak

Udalaren osoko bilkurak, 2008ko apirilean, 2008. urterako aurrekontua onetsi zuen. Haren arabera, gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspenak 21.036.630 eurokoak ziren udalerako, eta 437.225 eurokoak, berriz, "Julián Romano" Musika Patronaturako. 2008ko ekainaren 2an hartu zuen indarra, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeaz batera.

Aurrekontuko likidazioaren onespina eta kontu orokorrarena ez ziren legez ezarritako epeetan egin. Halaber, ez da bete hura kontuen batzorde berezira igortzeko ezarrita dagoen epea.

Oroitidazkiak ez du informaziorik jasotzen hirigintzako jarduketei buruz; halaber, atzeman dugu kontu orokorrekiko zenbait alde badaudela, zenbateko oso txikiengatik bada ere.

Hona gure gomendioak:

- *Behin betiko onartzea aurrekontu orokorra, kasuan kasuko ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen.*

- *Ekitaldiko Kontu Orokorra osatzeko, aurkezteko eta onesteko legezko epeak betetzea, bai eta aurrekontuaren likidazioa onesteko epea ere.*

- *Oroitidazkian jasotzea urteko kontuak errazago ulertzeko beharrezkoa den informazio guztia;*

besteak beste, hirigintza-jarduketei buruzko datuak.

VI.1.2. Beste alderdi orokor batzuk

Udalak ez du dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorrik, dirulaguntzak emateko irizpideak eta prozedura arautu duenik.

Entitatearen barreneko kontrola hobetzeko, komenigarritzat jotzen dugu aurrekontuaren exekuzio-oinarriak osatzea aurrekontuaren eta kontabilitatearen fase desberdinetarako arduradunak identifikatzeko eta esleitzeko oinarrizko kudeaketa-prozedurekin.

Hona gure gomendioak:

- *Dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onestea.*

- *Exekuzio-oinarriak osatzea aurrekontu-kudeaketarako oinarrizko prozedurekin, eta arduradunak identifikatu eta esleitzea udalaren aurrekontuan eta egoera finantzarioan eragina izan dezaketean jarduketa guztietarako.*

VI.2. LANGILERIA ARLOKO GASTUAK

Langileen atalean aitortutako betebeharrak batearuek 5.851.769 euro egiten dute; hau da, 2008an sortutako gastu guztien ehuneko 25. Eragiketa arruntetan eginiko gastuek, berriz, ehuneko 55 egiten dute.

Udaleko langile-gastuak 5.546.128 eurokoak dira, eta "Julián Romano" Musika Patronatuarenak, berriz, 305.641 eurokoak. 2007. ekitaldiarekin alde ratuta, guztira ehuneko 13 egin dute gora.

Udalaren eta "Julián Romano" Musika Patronatuaren plantilla organikoa 2008ko apirilaren 11n onetsi zen hasiera batez; behin betiko onespina, berriz, 2008ko uztailaren 7an eman zitzaion. Honakoa da haien osaera:

Entitatea	Lanpostuak, guztira	Lanpostu hutsak
Udala	96	28
"Julián Romano" Musika Patronatua	15	7
	111	35

Azterketa eginez, ondorioztatzen da lanpostu hutsen kopurua ehuneko 32 inguru dela (ehuneko 29, udalean; eta ehuneko 47, berriz, musika patronatuan). E mailaren gaineko ehuneko 3,5eko osagarria oker islatuta dago plantilla organikoan.

Gastu horien gainean lagin bat aztertuta, ondorioztatzen da ordainsariak, oro har, betetako lanposturako erabakitakoak direla, egindako atxikipe-nak zuzenak direla, eta langileria-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela.

Hona gure gomendioak:

- *Lanpostu bakoitzari egiazki esleitutako osagarriak jasotzea plantilla organikoan.*

Kontratu mota	Prozedura	Urteko lizitazioaren zenbatekoa	Urteko adjudikazioaren zenbatekoa (BEZa kenduta)	Epea
Laguntzarako kontratua	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	70.000	59.940	3 urte

Kontratazio-espeditente horren izapidetzea eta haren adjudikazioa, oro har, kontratuei buruzko legediaren arabera egin dira.

Berraztertutako gainerako gastuak 2008ko ekitaldikoak dira, eta kasuko fakturretan daude justifikatuta. Zuzen kontabilizatu dira, nahiz eta atzematen den aholkularitzako, laguntza teknikoko eta zaintzako zerbitzu batzuek gastuen halako bolumen bat dutela non, aldizkako gastuak direla jotzen bada, beren zenbatekoaren arabera kontratazio-prozedura bat izapidetu beharko litzatekeen.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratuaren izaeraren eta zenbatekoaren arabera kontratazio prozedura egokia kontrata-tzea.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZU-EN ALORREKO GASTUAK

2008an gastu arruntetan eta zerbitzuetan egini-ko gastuak, 3.837.080 euroko zenbateko bateratua egiten dutenak, ekitaldiko gastu guztien ehuneko 16 eta eragiketa arruntetako gastuen ehuneko 36 dira.

Gastu horiek ehuneko 10 egin dute gora 2007koekin alderatuta.

Kapitulu honetan gastuen lagin bat berraztertu da; horien artean, argiteria publikoa mantendu, kontserbatu eta konpontzeko zerbitzuaren kontra-tazio-espeditentea sartu da. Honako ezaugarriak dauzka:

VI.4. INBERTSIOAK

2008an inbertsioetarako dagoen hasierako aurrekontu bateratua 9.540.355 eurokoa da. Behin betiko aurrekontua, aurrekontu-aldaketen ondori-ozkoa, 26.196.165 eurokoa da.

Eginiko inbertsioek 12.707.358 euro egin dute ekitaldian; horietatik, 6.259 euro Musika Patronatu-ari dagozkio. Betetze maila ehuneko 49 izan da.

Honakoak izan dira ekitaldiko aurrekontuan gastu-bolumen handiena izan duten inbertsioak:

	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)
Puy mendiko mazelaren luizietarako inbertsioa	1.460.000	938.953	%64
Bi zubiren arteko zeharkalea urbanizatzea	1.163.551	1.210.672	%100
Industrialdea	4.326.132	1.845.034	%43
Parke teknologikoa	5.762.445	3.331.430	%58
Merkatondoko belar artifizialeko futbol zelaia	1.757.000	1.202.672	%68
Zehaztutako obrak, guztira	14.469.128	8.528.761	%59

Kapitulu honen exekuzioak ehuneko 68 egin du gora 2007. urtearen aldean, nahiz eta exekuzioa txikia izan den aurreikusitako inbertsio hauetan, besteak beste:

	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)
Lurra erostea	1.249.977	–	–
10.1 exekuzio unitatea urbanizatzea	644.277	10.229	% 2
San Pedro auzoko igogailua	750.000	50.122	% 7
AR3 urbanizatzea (zerbitzuetarako nabea)	1.767.295	9.092	% 1
Tailer eskolaren/zerbitzuen/poliziaren nabea	2.498.513	–	–
Zehaztutako obrak, guztira	6.910.062	69.443	% 1

Kapitulu honetako gastuen lagin bat aztertu da; horien artean, besteak beste, 2008ko ekitaldian eginiko honako adjudikazioak sartu dira:

	Kontratu mota	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZa kenduta)	Exekuzio epea
Puy mendiko mazela egonkortzeko proiektuaren obrak (Las Lomas urbanizazioa)	Obra	Negoziatua, publiziterik gabekoa (presakoa)	1.729.138	1.368.994	11 hilabete
Erabilera kolektiboko igerileku estali gabekoentzako instalazioak birmoldatzeko obrak	Obra	Publiziterik gabeko prozedura negoziatua	466.802	442.854	8 aste
Merkatondoko futbol zelaian aldagelak egitea	Obra	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	877.069	680.167	7 hilabete
Merkatondoko futbol zelairako belar artifiziala erostea eta hura jartzea	Mistoa (hornidura eta obra)	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik goiti	544.780	389.612	6 aste
"Miguel de Eguía" komunikazio grafiko eta ikusizkoaren zentro teknologikoko obrak	Obra	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	3.829.443	3.427.351	9 hilabete

Egiaztatu da, oro har, kontratuei buruzko lege-dia bete egiten dela bai kontratazio-espeditentek izapidetzean, bai haiek adjudikatu eta betetzean.

Aztertutako laginetik ondorioztatzen da hobetu beharreko honako puntu hauek daudela:

- Puy mendiko mazela egonkortzeko proiektuaren obrak (Las Lomas urbanizazioa):

2007ko apirilean, luizi bat atzeman zen Puy mendiko mazelan. Horrek izan zezakeen arriskua zela eta, presako lan batzuk egin ziren eta udalak berak, urte bereko maiatzean, egoerari buruzko txosten tekniko bat eta zegokion obren proiektua enkargatu zituen.

2007ko urrian, eremua arrisku handikotzat deklaratu zen herritarren segurtasunerako, eta agindu zen txostenean planteatzen diren presako neurri bereziak berehala jar zitezen; halaber, laguntzak eskatu zitzaizkion Foru Administrazioari.

Obrak, azkenean, 2008ko ekainaren 19an adjudikatu ziren, presako izapideak erabiliz, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko 44. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Hautapen prozesura 9 enpresa gonbidatu ziren.

Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legeko 44. artikulua, "larrialdiko espeditenteari" buruzkoak, araubide berezi bat ezartzen du, zeinak bereizgarri baitu Administrazioak berehala jardun behar duela gertakariaren –kasu honetan, 2007koa– ondorioak ahal den guztian saihesteko edo haiei konponbidea emateko.

Halako inguruabarrak ez dagoenez, larrialdiko adierazpena egin zenetik iragan den denborarengatik, espeditente horren kontratazioa larrialdiko izapidetzearako arauetan aurreikusitako berezitasunen bitartez egin behar zen.

Espeditentean ez da ageri kontratatutako obrak larrialdikoak izateari buruzko justifikaziorik. Nafarroaren Kontratazio Atarian ere ez zen adjudikazioaren iragarkirik jarri.

- Merkatondoko futbol zelaiaren aldagelak egitea:

Espeditentean ezin izan da egiaztatu Kontratazio Mahaiaren aktarik baden; bertan, izan ere, adjudikazio proposamena erabakitzeko irizpideen aplikazioa jasoko litzateke.

- Merkatondoko futbol zelairako belar artifiziala erostea eta hura jartzea

544.780 euroko lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe) zuen, eta 2008ko uztailaren 24an adjudikatu zen, 389.612 euroan (BEZik gabe) eta exekutatzeko 6 asteko epearekin. Lanak 2008ko irailaren 24an hasi ziren.

2008ko azaroan, zuzendaritza fakultatiboak proposatu zuen kontratua bi aldeek adostasunarekin amaiaraztea, zeren eta proposatutako belar motak lehiaketako dokumentuan ageri diren zehaztasunak betetzen bazituen ere, zuzendaritza horrek uste baitzuen ez zela aukerarik egokiena belar mota horren ezaugarriak direla-eta.

Kontratu Tokiko Gobernu Batzarraren 2008ko azaroaren 13ko erabakiaz amaiarazi zen; benetan eginiko obraren likidazioa onetsi zen (100.868 euro, BEZik gabe), eta behar ziren prestazioak adjudikatzeko izapideak hasi ziren, prozedura negoziatuaren bitartez, kontratuarekin jarraitze aldera.

Prozesu berriaren abiapuntua lizitaziorako 413.571 euroko (BEZik gabe) gehieneko aurrekontua izan zen. Aurkeztutako hiru eskaintzei buruz kontratazio-mahaiak egin duen proposamena aintzat hartu eta 2008ko azaroaren 20an 357.637 euroan (BEZik gabe) adjudikatu zen, 6 asteko exekuzio-epearekin.

2008ko abenduaren 31n, adjudikazio-hartzaileak obra guztia likidatu zuen 426.403 euroan (BEZik gabe), ehuneko 19ko aldeaz gaindituz adjudikazioaren zenbatekoa; halere, ez dago jasota kontratuan egin beharreko aldaketa egin zenik.

Horrenbestez, espeditente horren guztizko kopuruak 527.271 euro (BEZik gabe) egiten du; hau da, hasieran adjudikatutakoa baino ehuneko 35 gehiago. Igoera hori heldu da, neurri handi batean, udalak irizpidea aldatu duelako hasiera batean kontratatutako belarrari buruz, eta lehenengo adjudikazio-hartzailearekin eginiko kontratua amaiarazi duelako.

- Argiteria publikoa berritzea Lizarrako Udaleko zenbait kaletan.

Obra horiek 714.560 euroan (BEZa barne) adjudikatu ziren, exekutatzeko 5 hilabeteko epearekin. 2007. urteko ekitaldiari buruzko txostenean aztertu genuen adjudikazio hori.

Aipatutako txostenean, jada adierazten zen adjudikaziokoa baino epe luzeagoan exekutatu zirela obrak, eta udalak epearen berriazko luzapenik eman duela jasota ez dagoen arren, obraren zuzendaritzak, 2009an, gertatutako atzerapenaren arrazoiei buruzko txosten bat eman zuela.

2008ko abenduaren 31n, hiru ziurtagiri onetsi dira; guztira, 548.748 euro egiten dute.

Tokiko gobernu batzarrak, 2009ko apirilaren 30ean, amaierako ziurtagiria onetsi zuen, 260.022 eurokoa; horrek esan nahi du exekuzioak 94.210 euro gehiago kostatu duela, eta horietatik 71.315

euro unitate berriei dagozkie. Hori dela eta, kontratua aldatzeko espediente bat izapidetu beharra zegoen.

- Lizarrako S-5 sektoreko UE-1 exekuzio unitatea urbanizatzeko proiektua eta "Miguel de Eguía" komunikazio grafiko eta ikusizkoaren zentro teknologikoa egiteko obrak.

Lizarrako Udalak eta Hezkuntza eta Zientzia ministerioak lankidetzan hitzarmen bat sinatu zuten 2006ko ekainaren 12an, "Miguel de Eguía" zentro teknologikoa sortu eta abian jartzeko. 2006an, ministerioak milioi bat euroko dirulaguntza eman zuen. 2007ko urriaren 25ean, ministerio horrekin eta xede berarekin hiru milioi euroko instrumentazio-hitzarmena sinatu zen, eta, azkenik, 2008ko uztailaren 31n, beste instrumentazio-hitzarmen bat sinatu zen, beste bi milioi euro ordainduta.

Udalak konpromisoa hartzen zuen lursail egoiak eta behar adinakoak laga eta urbanizatzeko, aipatutako zentroa egin ahal izateko.

2007ko ekitaldiaren amaieran, Lizarrako S-5 sektoreko unitateen zedarritzea onetsi zen: bi unitate independente egin ziren, UE-1 eta UE-2. Data horietan, UE-1 exekuzio unitatea birzatzitzeko eta urbanizatzeko proiektuak onetsi ziren. Parkea eta zentro teknologikoa exekuzio unitate horretan eraikitzea aurreikusita zegoen.

Exekuzio unitate honen birzatzitzea lotuta zegoen jabeekin hirigintza hitzarmen bat sinatzearekin, eta baldintza horren pean zegoen. Hirigintza-hitzarmenerako proposamena, ordea, ez zen sinatzera iritsi; hala eta guztiz ere, eremua birzatzitzeko eta urbanizatzeko proiektuekin aurrera jarraitu zen.

Lizarrako S-5 sektoreko UE-1 exekuzio unitatea urbanizatzeko lanak, 2.997.936 euroko zenbatekoan (BEZa barne), eta unitate horretan "Miguel de Eguía" zentro teknologikoa eraikitzeke lanak, 3.975.727 euroko zenbatekoan (BEZa barne), enpresa kontratista berari adjudikatu zitzaizkion, 2007ko abenduan eta 2008ko maiatzean, hurrenez hurren.

5. sektoreko UE-1 exekuzio unitatea urbanizatzeko lanez eta zentro teknologikoa eraikitzeaz arduratu zen enpresa horrek 2009ko irailean eta maiatzean abandonatu zituen lan horiek, hurrenez hurren.

2009ko uztailaren 31n, udalak amaitutzat eman zuen "Miguel de Eguía" komunikazio grafiko eta ikusizkoaren zentro teknologikoa eraikitzeke lanak egiteko kontratua. 2009ko azaroan, hura bukatzeko behar ziren lanak adjudikatu ziren, 1.908.817 euroko zenbatekoan (BEZa barne) eta hiru hilabete eta erdiko egite-eparekin, 2009ko azaroaren

27tik hasita. Obren amaierako ziurtagiria 2010eko apirilaren 15ean onetsi zuen udalak.

2009ko azaroan, amaitutzat eman ziren 5. sektoreko UE-1 exekuzio unitatea urbanizatzeko lanak. 2010eko apirilean, bukatu gabe geratu ziren obren egitea 138.039 euroan (BEZa barne) adjudikatu zen.

Obra horiekin lotuta eta 2008. ekitaldiari dago-kionez, egindako azterketatik ondoko alderdiak nabarmendu nahi ditugu:

Zentro teknologikoa eraikitzeke obren espediente ez dago jasota 2008ko ekitaldian adjudikatutako kontratazio-espedienteen zerrendan, hain zuzen ere erantsitako oroitidazkiko V. atalean ageri den horretan.

2008ko azaroaren 6an, udalak onartu zuen Lizarrako 5. sektoreko UE-1 exekuzio unitatea urbanizatzeko proiekturako hasiera batean aurreikusitako epea bi hilabete eta erdiz luzatzea.

2008ko aurrekontuari urbanizazio-lanengatik egotzitako gastua 1,4 milioi eurokoa da; zentro teknologikoko obrengatik egotzitakoa, berriz, 2,6 milioi eurokoa da.

Halaber, jabeekin hirigintza-hitzarmena egiteko proposamena sinatu ezenez, 2009ko ekitaldian honako egitate garrantzitsuak ageri dira:

- UE-1 exekuzio unitateko lurzatieen jabeen igoeritako urbanizazio kuotak ez dira ordaindu (2,6 milioi euro egiten dute), hitzarmena sinatu ez dela alegatuz.

- Jabetzaren erregistratzaileak ezezkoa eman dio UE-1 exekuzio unitatea birzatzitzeko proiektua inskribatzeari.

Bestalde, aztertutako espedienteetako batzuetan, ezin izan da egiaztatu adierazitako epearen barruan dagoenik baldintza administratiboen orrietan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu deneko data, ez baita aurkeztu udaleko erregistroan sartu izatearen agiria.

Azkenik, laginaren gainerakoa berrikusteko garaian, atzeman da kasu batean obraren zenbatekoa zatitu egin dela, ezarritako mugei egokitzeke. Laguntza zerbitzuetan, ez da egin amaierako urteko gastuari egokitutako kontratazio-prozedurarik.

Hona gure gomendioak:

- *Kontratuaren aldaketak behar bezala izapidetzea, hura exekutatu aurretik.*

- *Kontratazioaren araudia aplikatzea adjudikazio-prozedurarekin lotutako alderdi guztietan.*

- *Kontratazio prozedurarekin lotutako dokumentazioa erregistratzea, halako moduz non jasota geratuko baita ezarritako epeen betetzea.*

- *Larrialdiko espedientea erabiltzea soilik Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legean aurreikusitako kasuetan, hartan exijitzen den justifikazioarekin.*

- *Lizarrako S-5 sektoreko UE-1 urbanizazio-lanei eta "Miguel de Eguía" zentro teknologikoa eraikitze lanei dagokienez, behar diren jarduketak egitea konponbidea emateko izandako arazo-*ei, birzaitze-proiektua erregistroan jasotzearekin**

eta jabe bakoitzari dagozkion urbanizazio-kuotak kobratzearekin lotutakoei.

VI.5. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2008an, aitortutako eskubide bateratuak 18.463.784 eurokoak izan dira; horietatik, 13,2 milioi euro eragiketa arruntengatiko diru-sarrereri dagozkie, eta 5,2 milioi, berriz, kapital-eragiketengatiko diru-sarrereri.

Honelaxe banatzen dira diru-sarrerak:

	Bateratua	Udala	Musika Patronatua	Bateratzearen doitzeak
Zuzeneko zergak	3.690.556	3.690.556		
Zeharkako zergak	1.879.159	1.879.159		
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	1.671.159	1.530.735	140.425	
Transferentzia arruntak	5.747.332	5.673.644	262.429	(188.741)
Ondareko diru-sarrerak	253.844	252.986	858	
Eragiketa arruntengatiko diru-sarrerak	13.242.050	13.027.080	403.712	(188.741)
Inbertsioak besterentzea	685.611	685.611		
Kapital-transferentziak	4.536.123	4.536.123		
Kapital eragiketengatiko diru-sarrerak	5.221.734	5.221.734		
GUZTIRA	18.463.784	18.248.814	403.712	(188.741)

Betetze-maila ehuneko 48koa izan da, eta eragiketa arruntengatiko eta kapital-eragiketengatiko diru-sarrerak oso joera desberdina izan dute. Lehenengoak ehuneko 89koak izan diren bitartean, kapital-eragiketetatik heldu direnak % 35 baizik ez dira izan, diruzaintzako gerakina kontuan hartzen ez bada.

Diru-sarrera arruntak gauzatzerakoan ez da ehuneko handiagoetara iritsi aparkalekuetarako emakida administratiboen kontusaila ez delako gauzatu; kapitaleko diru-sarreretan, berriz, ez da ehuneko handiagoetara iritsi ez direlako bete aurrekontuan jasotako ondasunen besterentze-

aurreikuspenak, ez eta bestelako hirigintza-apro-
betxamendu batzuk ere.

2007. urteari dagokionez, aitorturiko eskubide-
ek ehuneko 10 egin dute behera; eragiketa arrun-
tengatiko diru-sarrerak, berriz, ehuneko 18 egin
dute gora, eraikuntzarekin lotutakoak izan eta
aldizkakoak ez diren diru-sarrereri esker.

Diru-sarreraren aurrekontuko eta "La Estación
tabernaren emakida administratiboa" kontratazio-
espedienteko kontusailen lagin baten gainean
azterketa egin ondoren, egiaztatu dugu egoki iza-
pidetu eta kontabilizatu direla, oro har.

VI.6. IBILGETUA - INBENTARIOA

Udalaren ondasunen inbentarioa 1995ean egin zuten eta ez dute eguneratu. Udal ondasun guztiak ez daude erregistratuta.

2003an, zerbitzu publikoen kostua kalkulatzearen ondorioetarako, hari atxikitako ondasunen zerrenda bat egin da.

Ondasunen altak aipatu zerrendan jasotzen dira, eta ez 1995ean egindako inbentarioan. Ez dago loturarik kontabilitatearen eta inbentarioaren artean.

Kontabilitatearen ikuspegitik, tokiko erabilera publikoko ondasunak, behin bukatu ondoren, ez dira aldatzen erabilera orokorrari emandako ondare-kontura.

Hona gure gomendioak:

- *Udal ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatua egitea eta onestea.*
- *Inbentarioaren eta kontabilitate finantzarioaren arteko lotura ezartzea.*
- *Udal ondasunak (jabari publikokoak, ondarezkoak eta herri ondasunak) eskritoretan jaso eta erregistratzeko prozesua osatzea.*
- *Ibilgetutik kentzea azpiegituretan eta erabilera orokorrerako ondasunetan egindako inbertsioak, behin haiek egin ondoren.*

VI.7. GORABEHERAK

Udaletik eta haren aholkulari juridikoengandik jasotako erantzunak aztertuta, honako gorabeherak atzeman ditugu:

- AR-3 birzatatze-proiektuaren behin betiko onespina dela-eta, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian dagoen prozedura arrunta.
- Gora jotzeko errekurtoa, 2008ko irailean aurkeztua, "Lizarrako Koroatzearen Plazako lurrarazpiko aparkaleku berriko akats eta gabeziak konpontzeko lan osagarriak" enkargatzeko kontratazioaren egintza materialaren aurka. Txosten honetan aztertzen den aldiaren ondorengo egitate gisa, Nafarroako Administrazio Auzitegiak, 2010eko otsailaren 10ean, errekurtoa baietsi du, eta egintza deuseztatu du Zuzenbidearekin bat ez datorrelako, kontratistak egindako obrak kobratzeko daukan eskubidea gorabehera.
- Gora jotzeko errekurtoa, 2008ko irailean aurkeztua, "Lizarrako San Frantzisko Xabierkoa kalearen azpian autoentzako aparkaleku bat erakitzeke lanen" 12. obra-ziurtagiriaren eta obra amaieraren erretentzioa ordaintzeko egintza mate-

rialaren aurka. Adierazi beharra dago, geroago, 2010eko otsailaren 10ean, Nafarroako Administrazio Auzitegiak gora jotzeko errekurto hori ezetsi duela.

VI.8. FINANTZA-KONTUAK

Udalaren kontu finantzarioen saldoa 3.108.258 eurokoa da 2008ko abenduaren 31n.

Diruzaintzako egoera-orriak ez du jasotzen saldoen berdinkatze-akta.

Udalak hiru kontu korrante dauzka irekita finantza entitate batean; haien saldoa, guztira, ez da 150 eurora iristen, eta ia mugimendurik ez dute izan 2008an, komisiogatikoa gastuez beste.

Hona gure gomendioak:

- *Kontu korranteetako saldoen berdinkatze-akta eranstea diruzaintzako egoera-orriari.*

VI.9. AURREKONTUZ KANPOKO KONTUSAILAK

Aurrekontukoak ez diren hartzekodunen kontuan udalak 23.809 euroko zenbatekoa jaso du, interes artistikoa duten obren kontzeptuan; zenbateko horrek zerikusia du 1998. urtean egindako udal-obra baten esleipen-hartzaileari Udalak inbertsio "artistikoetarako" kobratu zion atxikipenarekin.

Hona gure gomendioak:

- *1998an interes artistikoko obretarako atxikipen gisa kobratutako funtsak zertan erabilikoa diren zehaztea.*

VI.10. HIRIGINTZA

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra 1995eko abenduan onetsi zen. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea finkatzen zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeke.

Udal Plan Orokorrari 2007ko maiatzaren 3an eman zitzaion behin-behineko onespina. 2008ko martxoan, planaren jarraipen-batzordeari alegazioei buruzko txosten teknikoa aurkeztu zitzaion. 2008ko abenduaren 31n, behin betiko onspena falta zen.

Udalak ez dauka hirigintza-hitzarmenen erregistrorik.

Hirigintza arloko arduradunek jakinarazi digute 2008. urte osoan udalak bi hirigintza-itun izapidetu dituela. Azterketatik ondorioztatzen da hirigintzari buruzko lege indardunen arabera izapidetu dela.

Ezin izan dugu udalaren ziurtagiririk lortu 2008ko ekitaldian zehar eginiko hirigintza-jarduketei nahiz lehendik egin arren, 2008ko abenduaren 31n bizirik dauden jarduketei buruz.

Udalak ez du kudeatzen bere lurzoru-ondarea erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita. Horri dagokionez, inbentarioan ez da jasotzen ondare hori lotuta edo bereizita dagoen, eta ez da sortu erregistroa.

Hona gure gomendioak:

- *Hirigintza-plangintza LFOTUren zehaztaperatara moldatzea.*

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa sortu behar da.*

- *Arloak barne-kontrol handiagoa egin behar du hirigintza-jarduketei buruzko espedienteen kudeaketaren gainean.*

- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea.*

VI.11. "JULIÁN ROMANO" MUSIKA PATRONATUA ERAKUNDE AUTONOMOA

Honakoa izan da "Julián Romano" musika patronatuaren 2008ko ekitaldiko aurrekontuaren betetzea:

Gastuak	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren %
Langileria-gastuak	347.525	305.641	% 88
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	83.380	72.893	% 87
Inbertsioak	6.320	6.259	% 99
Guztira	437.225	384.793	% 88

Diru-sarrerak	Behin betiko aurreikuspenak	Aitortutako eskubideak	Betetakoaren %
Tasak eta bestelako diru-sarrerak.	143.092	140.425	% 98
Transferentzia arruntak	293.691	262.429	% 89
Ondareko diru-sarrerak	442	858	% 194
Guztira	437.225	403.712	% 92

Honakoa da erakunde autonomoari buruz eginiko azterketaren emaitza:

Atezain-lanpostuari dagokion gastua atezaina udalekoa da, baina musika-eskolan lan egiten du-ondasun arrunten eta zerbitzuen kapituluan (bigarrean) kontabilizatu da.

Ibilgetuari dagokionez, ez dago erakunde autonomoaren ondasunen inbentario eguneraturik edo balioztaturik; ondasun horietako batzuk Udalak egindako ondasunen zerrendan daude.

Hona gure gomendioak:

- *Barne-kontrolerako funtzioak betetzea musika patronatuan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean erabakitako norainokoaren barruan betiere, eta hiru esparru hauek kontuan hartuta: ikuskatzailatza, kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren kontrola.*

- *Udalari eginiko transferentzia arrunt gisa kontabilizatzea musika patronatuan lan egiten duen udal atezainaren gastua.*

- *Musika patronatuko ondasunen udal inbentario balioztatua eta eguneratua egitea.*

VI.12. "ENTIDAD PARA LA GESTIÓN DEL DESARROLLO MUNICIPAL Y SOCIOECONÓMICO DE ESTELLA-LIZARRA, S.A." UDAL SOZIE-TATEA.

"Entidad para la gestión del desarrollo municipal y socioeconómico de Estella-Lizarrá, S.A." persona bakarreko sozietate bat da, zeinaren akzio-dun bakarra Lizarrako Udala baita. 2006an eratu zen, 60.500 euroko kapitalarekin.

2008ko abenduaren 31ko egoera-balantzea, galeren eta irabazien kontua eta oroitidazki laburtua 2009ko urriaren 20an onetsi ziren. Hala eta guztiz ere, gure azterketa-lanean ezin izan dugu oroitidazki laburtua eskuratu, eta ez dugu jakin, ezta ere, 2008ko abenduaren 31n ondare garbiari buruzko aldaketa-orririk baden.

Udal sozietate honen 2008ko abenduaren 31ko egoeraren balantzeak honako saldoak agertzen ditu:

AKTIBOA	2008	PASIBOA	2008
Aktibo korrontea		Funts berekiak	
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	43	Kapitala	60.500
Epe laburreko inbertsio finantzarioak	59.500	Erreserbak	(939)
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	459	Ekitaldiko emaitza	441
Aktiboa, guztira	60.002	Pasiboa, guztira	60.002

Txosten hau auditore M^a. Pilar Sola Mateos andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Nafarroako Parlamentuaren 2009ko kontu orokorrari buruz aholku emateko txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 28an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak egindako aholku emateko txostena, Nafarroako Parlamentuaren 2009ko kontu orokorrari buruzkoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Parlamentuaren 2009ko kontu orokorrari buruz aholku emateko txostena, Comptos Ganberak egina.

AURKIBIDEA

- I. Helburua eta norainokoa (27. or.).
- II. Iritzia (27. or.).
- III. 2009ko kontu orokorraren laburpena (28. or.).
 - III.1. 2009ko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa (28. or.).
 - III.2. 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (29. or.).
 - III.3. Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria 2009ko abenduaren 31n (29. or.).
 - III.4. 2009ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (30. or.).
 - III.5. 2009ko emaitzen kontua eta banaketa (31. or.).

I. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2010eko martxoaren 8an hartutako erabakia betez eta Comptos Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/2002 Foru Legean xedatuarekin bat, Nafarroako Parlamentuaren 2009ko kontu orokorre buruzko txostena –aholku ematekoa– egin dugu.

Lanaren ardatza, egindako eskaria betez, kontu hori osatzen duten finantzen egoera-orri nagusiak arrazoizkoak eta koherenteak diren aztertzea izan da, bai eta haien dokumentu-euskarriak eta ziurtagiriak aztertzea ere.

Metodologia gisa, Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Comptos Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioak eta arauak aplikatu dira, eta inguruabarren arabera eta eskariaren helburuei berariaz erreparatuta beharrezkotzat jo ditugun prozedura teknikoak erabili ditugu.

Azterketa lana auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatutako talde batek egin du, 2010eko ekainean. Era berean, Comptos Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Parlamentuko langileei eskerrak ematen dizkiogu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. IRITZIA

Egindako eskariari jarraituz, Nafarroako Parlamentuaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorra azertu dugu. Haren prestaketa eta edukiak Parlamentuaren ardura dira, eta modu laburtuan aurkezten da txosten honetako III. atalean.

Gure ustez, Nafarroako Parlamentuaren 2009ko ekitaldiko kontu orokorrak fidelki islatzen ditu, alderdirik behinenetan, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioa eta abenduaren 31ko ondare-egoera eta eragiketen emaitzak. Halaber, behar bezala interpretatu eta ulertzeko informazio beharrezkoa eta nahikoa du, aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen eta guztiok onartuak diren kontabilitate printzipio eta araei jarraituz.

Orobat, 2009ko ekitaldian zehar, Nafarroako Parlamentuaren jardura ekonomiko-finantzarioa legezketasun-printzipioari jarraituz egin da.

Txosten hau auditore M^a. Pilar Sola Mateos andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2010eko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

III. 2009ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

III.I. 2009ko GASTUEN ETA DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

GASTUAK, 2009

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitorrutako betebeharrak	Betetzea (%)	Ordaindutakoa (%)	Ordaintzeke dagoena	Kreditu-gerakina
1. Langileria-gastuak	6.781.431,00	0,00	6.781.431,00	6.185.649,93	91,21%	6.185.649,93	0,00	595.781,07
2. Gatu aruntak ondasun eta zerbitzuetan	2.588.897,00	119.255,45	2.708.152,45	1.635.234,91	60,38%	1.586.257,93	48.976,98	1.072.917,54
4. Transferentzia aruntak	2.891.509,00	11.820,00	2.903.329,00	2.748.685,58	94,67%	2.715.293,30	33.392,28	154.643,42
6. Inbertsio errealak	645.210,00	191.568,88	836.778,88	243.407,63	29,09%	242.080,86	1.326,77	593.371,25
8. Aktibo finantzarioak	57.795,00	0,00	57.795,00	28.651,84	49,57%	28.651,84	0,00	29.143,16
9. Pasibo finantzarioak	132.654,00	0,00	132.654,00	0,00	0,00%	0,00	0,00	132.654,00
Gastuak, guztira	13.097.496,00	322.644,33	13.420.140,33	10.841.629,89	80,79%	10.757.933,86	83.696,03	2.578.510,44

DIRU-SARRERAK, 2009

Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitorrutako eskubideak	Betetzea (%)	Kobratutakoa
3. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	7.908,00	0,00	7.908,00	37.343,06	472,22%	37.343,06
4. Transferentzia aruntak	12.188.931,00	0,00	12.188.931,00	12.188.891,00	100,00%	12.188.891,00
5. Ondareko diru-sarrerak	65.000,00	0,00	65.000,00	35.536,38	54,67%	35.536,38
7. Kapital-transferentziak	805.052,00	0,00	805.052,00	805.052,00	100,00%	805.052,00
8. Aktibo finantzarioak	30.010,00	322.644,33	352.654,33	42.224,41	11,97%	42.224,41
9. Pasibo finantzarioak	595,00	0,00	595,00	0,00	0,00%	0,00
Diru-sarrerak, guztira	13.097.496,00	322.644,33	13.420.140,33	13.109.046,85	97,68%	13.109.046,85

III.2 2009ko EKITALDIKO AURREKONTUAREN EMAITZA

Kontzeptuak	Aitortutako eskubide garbiak	Aitorturiko betebeharrak garbiak	Zenbatekoak
1. Eragiketa ez-finantzarioak (1-7 kapituluak)	13.066.822,44	10.812.978,05	2.253.844,39
2. Eragiketak finantza-aktiboekin (8. kapitulua)	42.224,41	28.651,84	13.572,57
I. Ekitaldiko aurrekontuaren emaitza (1+2)	13.109.046,85	10.841.629,89	2.267.416,96
II. Finantza-pasiboen aldaketa garbia (9. kapitulua)			0,00
III. Ekitaldiko aurrekontu saldoa(I+II)	13.109.046,85	10.841.629,89	2.267.416,96
1. (+) Gehitutako kredituak finantzatzeko funtsak			322.644,33
2. (-) Finantzaketako desbideraketak (deusezteak)			0,00
IV. EKITALDIKO FINANTZAKETAREN SUPERABITA EDO DEFIZITA (III+1+2)			2.590.061,29

III.3. DIRUZAINZAKO GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2009ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptuak	Zenbatekoak	
	2008	2009
1. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.821,77	3.259,98
(+) ekitaldiko aurrekontukoak	0,00	0,00
(*) itxitako aurrekontuetakoak	0,00	0,00
(+) aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	1.821,77	3.259,98
(+) merkataritzako eragiketakoak	0,00	0,00
(-) kobratzeko zailak	0,00	0,00
(-) egindako kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0,00	0,00
2. (-) Ordaintzeko dauden obligazioak	2.487.667,40	2.634.471,60
(+) ekitaldiko aurrekontukoak	106.837,89	83.696,03
(*) itxitako aurrekontuetakoak	0,00	0,00
(+) aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak (1. oharra)	2.380.829,51	2.550.775,57
(+) merkataritzako eragiketakoak	0,00	0,00
(-) egindako ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0,00	0,00
3. (+) Funts likidoak	2.812.095,29	2.753.818,53
III. Diruzaintzako gerakina, guztira (1 -2 +3) = I + II)	326.249,66	122.606,91
I. Atxikitako diruzaintza-gerakina	322.644,33	119.001,58
II. Aplikatzeko dagoen diruzaintza -gerakina	3.605,33	3.605,33

1. oharra: 4760 kontuaren ("Foru Ogasun Publikoa hartzekodun, kreditu itulketa dela-eta") saldoa jasota dago: 2.305.745,23 € 2008-12-31n, eta 2.471.059,71 euro 2009-12-31n

III.4. 2009ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

AKTIBOA	2009-12-31, balantzea	2008-12-31, balantzea
A) IBILGETUA	26.323.445,37	26.104.019,34
IBILGETU MATERIALA	25.749.057,45	25.587.762,11
2020 Eraikinak	22.051.216,69	22.051.216,69
2030 Makineria, instalazioak eta tresneria	659.476,10	592.490,76
2040 Garraio elementuak	138.326,27	138.326,27
2050 Altzariak eta tresneria	1.103.419,35	1.091.606,17
2060 Informazioa prozesatzeko tresneria	513.866,33	511.838,86
2080 Bestelako ibilgetu materialak	1.282.752,71	1.202.283,36
IBILGETU EZ-MATERIALA	535.978,69	465.869,60
2110 Ikerketak, azterlanak eta proiektuak	0,00	0,00
2150 Aplikazio informatikoak	535.246,69	465.137,60
2180 Bestelako ibilgetu materialak	732,00	732,00
FINANTZA-IBILGETUA	38.409,23	50.387,63
2540 Epe luzeko maileguak	38.409,23	50.387,63
D) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	2.775.948,11	2.834.380,83
ALDI BATERAKO FINANTZA-INBERTSIOAK	18.869,60	20.463,77
5340 Epe laburreko maileguak	18.869,60	20.463,77
APLIKATZEKE DAUDEN KONTUSAILAK	0,00	0,00
5500 Aplikatzeke dauden gastuak	0,00	0,00
ZORDUNAK	3.259,98	1.821,77
5610 Aurrekontuak ez diren beste zordun batzuk	3.259,98	1.821,77
FINANTZA-KONTUAK	2.753.818,53	2.812.095,29
5700 Kutxa	3.664,03	2.019,12
5710 Finantza erakundeak	2.742.483,10	2.800.970,49
5711 Finantza erakundeak	7.671,40	9.105,68
(A + B) AKTIBOA, GUZTIRA	29.099.393,48	28.938.400,17
ABALAK ETA BERMEAK	37.537,27	40.045,27
0520 Harturiko abalak	37.537,27	40.045,27
PASIBOA	2009-12-31ko balantzea	2008-12-31ko balantzea
A) FUNTS BEREKIAK	26.463.742,04	26.449.552,93
ONDAREA	26.343.283,02	26.125.451,16
1000 Ondarea	19.641.998,06	19.424.166,20
1070 Adskribatutako ondarea	6.701.284,96	6.701.284,96
BESTELAKO FUNTS BEREKIAK	120.459,02	324.101,77
1291 Atxikitako funtsak, sartzeko daudenak	119.001,58	322.644,33
1300 Aplikatzeke dauden kontusailak	1.457,44	1.457,44
B) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	2.635.651,44	2.488.847,24
BETEBEHAR AITORTUENGATIKO HARTZEKODUNAK	83.696,03	106.837,89
4000 Indardun ekitaldian aitorturiko betebeharrerako hartzekodunak	83.696,03	106.837,89
4010 Itxitako ekitaldian aitorturiko betebeharrerako hartzekodunak	0,00	0,00
ZORRAK ENTITATE PUBLIKOEKIN	2.550.775,57	2.380.829,51
4760 Foru Ogasun Publikoa, kredituen itzulket agatik	2.471.059,71	2.305.745,23
4770 Gizarte Segurantza hartzekoduna	79.715,86	75.084,28
FIDANTZAK ETA GORDAILUAK	1.179,84	1.179,84
5200 Jasotako epe laburreko fidantzak	1.179,84	1.179,84
APLIKATZEKE DAUDEN BESTE KONTUSAIL BATZUK	0,00	0,00
5550 Aplikatzeke dauden diru-sarrerak	0,00	0,00
(A + B) PASIBOA, GUZTIRA	29.099.393,48	28.938.400,17
ABALAK ETA BERMEAK	37.537,27	40.045,27
0570 Abal-emaileak	37.537,27	40.045,27

III.5. 2009ko EMAITZEN KONTUA ETA BANAKETA

ZORRA		HARTZEKOA	
6.364.111,46	Langileen eta parlamentarien gastuak	Salmentak	0,00
0,00	Zergak	Diru-sarrera finantzarioak	35.536,38
1.456.773,38	Lanak, hornidurak eta kanp. zerb.	Kapital transferentziak.	805.052,00
2.760.688,78	Transferentzia arruntak	Transferentzia arruntak	12.188.891,00
2.485.248,82	Aurrezkia (emaitza positiboa)	Beste diru-sarrera batzuk	37.343,06
13.066.822,44	Zorrak, guztira	Hartzekoa, guztira	13.066.822,44

Emitza doitua

ZORRA		HARTZEKOA	
2.485.248,82	Ekonomia- eta ondare-emaitza	ONDAREA (Inbertsio garbi aktibatuak)	-13.572,57
322.644,33	Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak	ONDAREA (amaierako aktiboak-pasiboak aldaketa)	231.404,43
		Ondarearen emaitza ekonomiko doitua	2.590.061,29
2.807.893,15	Zorrak, guztira	Hartzekoa, guztira	2.807.893,15

Emitzaren banaketa

ZORRA		HARTZEKOA	
2.590.061,29	Ekonomia eta ondare-emaitza doitua	Foru Ogasun Publikoa hartzekoduna, kredituen itzulketarengatik	2.471.059,71
		Atxikitako funtsak, gehitzeko daudenak	119.001,58
2.590.061,29	Zorrak, guztira	Hartzekoa, guztira	2.590.061,29

